


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

2018-2021 PLAN ESTRATEGIKOAREN OINARRIAK

www.ehu.eus



OINARRIEN HELBURUAK

2018-2021 aldirako Pan Estrategikoaren abiaputua izan nahi du.

Plan hori unibertsitateko kideen artean eginiko **gogoeta, partaidetza ireki eta elkarren arteko trukaketa prozesu** baten emaitza izango da.

Planak **Unibertsitatearen hurrengo urteetarako lehentasunak ezarriko** ditu eta, irakaskuntza eta ikerketa bikainaren bitartez, gizartea hobetzen laguntzeko helburuan sakontzea ahalbidetuko du.

UPV/EHUK, bere Klaustroaren bitartez, bere oinarri estrategikoei heldu behar die eta **2018-2021 aldirako oinarri estrategiko berriak** proposatu. Oinarri horiek aintzat hartu beharko dituzte unibertsitatearen errealitate berria, unibertsitatearen lanak euskarri dituen funtsezko ardatzak, unibertsitate esparru berriak aurrean dituen erronkak eta xede duen gizartea.

EGUNGO EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

BARNE DIAGNOSTIKOA

*Ahuleziak
Indarguneak*

KANPO DIAGNOSTIKOA

*Mehatxuak
Aukerak*

BARNE DIAGNOSTIKOA

Ahuleziak:

1. Lotura ahula Graduaren eta Graduondokoaren artean, graduondoko ikasleengan atxikitze eta erakarpen maila txikia eraginda.
2. Online eta etengabeko prestakuntzako erakunde estrategia baten falta.
3. Ikasleen prestakuntza maila txikia zeharkako hainbat gaitasunetan.
4. Prestakuntzaren nazioartekotze txikia, ingelesezko eskaintza txikia eta gutxi egituratuarekin.
5. Gradu bikoitzen eta nazioarteko titulazio bikoitzen kopuru txikia.
6. Euskarazko prestakuntza eskaintza urria graduondoko ikasketetan, bai eta graduako titulu batzuetan ere.
7. Rankingetan dugun lekua hobe daiteke.
8. UPV/EHUko ikerketa taldeen artean lankidetzarako kultura falta.



BARNE DIAGNOSTIKOA

Ahuleziak:

9. Lankidetzaren urria Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko (ZTBES) eragileekin proiektu handiei helduko dieten partzuergoak eratzeko.
10. UPV/EHUren eskaintza zientifiko-teknologikoaren transferentzia maila hobea daiteke.
11. Iraunkortasunaren eta gizarte erantzukizunaren gaiak prestakuntzan eta ikerketan zeharka sartzeko estrategia zehatzen falta.
12. Irakasle-ikertzaileen zahartzea eta zailtasunak belaunaldi erreleboari aurre egiteko.
13. Irakasle-ikertzaileen motibazio galera (irakaskuntza, zuzendaritza eta kudeaketa jardura gutxietsia; I+Gko inbertsioaren murrizketa).
14. AZPko langileen behin-behinekotasun/bitartekotasun handia.
15. Irakaskuntzari eta ikerketari laguntzeko AZPko langile falta.



BARNE DIAGNOSTIKOA

Ahuleziak:


16. Ingelesko akreditazioa duten Administrazio eta Zerbitzuetako langile gutxi.
17. Zailtasunak euskararen erabilera unibertsitateko bizitzako arlo guztietara zabaltzeko.
18. Unibertsitate bizitza gutxi campusetan.
19. Genero desorekak erantzukizuneko karguetan eta estatus akademiko handienekoetan.
20. Erakundeko partaide izatearen sentimendu eskasa unibertsitateko kideen artean.
21. Unibertsitateko hainbat kolektibotako pertsonen inplikazio falta Unibertsitatearen gobernantzan.
22. E-administrazioaren eta kontabilitate analitikoko sistemaren ezarpenaren atzerapena.



BARNE DIAGNOSTIKOA

Indarguneak:


1. UPV/EHUren kalitate eta berrikuntza akademikoa IKD berezko hezkuntza ereduari eta EHUNDU, Iraker, IKDGazte, Docentiaz eta beste programa batzuei esker.
2. Kalitatezko prestakuntza graduetan, masterretan eta doktoretza programetan, jakintzaren arlo guztietan.
3. UPV/EHU graduaturiko pertsonen laneratze maila ona.
4. Kalitatezko ikerketa taldeak jakintzaren eremu guztietan eta kalitatezko ekoizpen zientifikoaren areagotze nabarmena, baita I+Gko nazioarteko deialdietatik finantzazioa lortzeko gero eta gaitasun handiagoa ere.
5. Irakaskuntzarako eta ikerketarako azpiegitura eta instalazio lehiakorren eskuragarritasuna.
6. Ekintzailetzako eta enpresak sortzeko programak.
7. Komunikazio eta hedapen zientifikoko programak.



BARNE DIAGNOSTIKOA

Indarguneak:


8. Lidergoa euskarazko ezagutzaren ekoizpen, transmisio eta hedapenean.
9. UPV/EHU: erreferentziarako erakundea euskal gizartearentzat.
10. Irakasle-ikertzaile doktoreen ehuneko oso handia jardunaldi osoko kontratuarekin.
11. Karrera akademikoa bultzatzeko programak.
12. Irakaskuntza ingelesez egiteko akreditazioa duten irakasleen kopuru handia.
13. Kreditaturiko euskarazko profila duten irakasle-ikertzaileen eta AZPko langileen kopuru handia.
14. Unibertsitatearen proiektua bere egiten duten eta zerbitzuei eutsi eta haiek hobetzen dituzten langileak, lan baldintza zailak eduki arren.
15. Prestakuntza akademiko zabala duten AZPko langileak.
16. Ofizialak ez diren hizkuntzetan gero eta prestakuntza hobea duten ikasleak.



BARNE DIAGNOSTIKOA

Indarguneak:


17. Nazioarteko mugikortasunen bat egin duten egresatuen ehuneko handia.
18. Egresaturiko emakumeen ehuneko handiagoa, gizonekiko, graduetan, masterretan eta doktorego programetan.
19. Unibertsitatean emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzera zuzenduriko baliabideak eta programak.
20. Irakasle-ikertzaileen eta AZPko langileen ekipamendu informatiko ona.
21. Baliabide bibliografikoekin loturiko inbertsio eta sarbide zabala.
22. Erakundearen erantzukizuna gardentasunarekin, iraunkortasunarekin eta gizarte konpromisoarekin.



KANPO DIAGNOSTIKOA

Mehatxuak:


1. Lehiakortasuna lurraldeko unibertsitateen artean gradu, master eta etengabeko prestakuntzako titulazio eskaintzari dagokionez.
2. Gradu eta graduondoko eskaintzak online modalitatean eta ingelesez dituzten unibertsitate estatalak eta nazioartekoak.
3. Enpresa ehunak, elkarteek eta sektoreko klusterrek beren etengabeko prestakuntza premiekiko urrun dagoen erakunde gisa ikusten dute UPV/EHU.
4. Nazioarteko ospea duten unibertsitateen eta ikerketa guneen lehiakortasunaren gorakada nabarmena finantzaketa baliabideak eta kualifikazio handiko ikertzaileak I+G+B garatzeko erakartzeko unean.
5. Ingelesaren hegemoniak oztopatu egiten du euskararen erabilera jakintza zientifikoa transmititzeko lanean.



KANPO DIAGNOSTIKOA

Mehatxuak:


6. Arrazoi ekonomikoetan, sozialetan eta genero arrazoietan oinarrituriko desoreken gorakada nabarmena.
7. Zientzia eta teknologia bokazio gabezia, bereziki emakumeen artean.
8. Irakasle-ikertzaileen politika egokia oztopatzen duten lege eta finantza esparrua (birjarpen eta erakartze tasa, eta talentuaren zaintza).
9. AZPko langileekin loturiko politika egokia oztopatzen duten lege eta finantza esparrua (plantillak zabaltzea, lanbide promozioa, birjarpen tasa eta plantillak unibertsitatearen premietara egokitzea).
10. Agentzien ebaluazio sistemak (ikerketak, irakaskuntza eta zuzendaritza, eta kudeaketa jardueren balorazio desorekatua; irakasle-ikertzaileak akreditatzeko irizpideen aldi behingo aldaketa).



KANPO DIAGNOSTIKOA

Mehatxuak:


11. Beherakada demografikoa Euskal Herrian.
12. Zientziaren munduan parte hartzea galarazten duten egiturazko trabak.
13. Administrazio Publikoaren finantzaketa eznahikoa jarduerari eusteko eta proiektu berriak abiarazteko (ikerketa jardueraren hazkundera, Medikuntza eta Erizaintza Fakultate berria, Zientzia Parkeko eraikin berriak martxan jartzea eta eraikinen eta ekipamenduen mantentzea).
14. Unibertsitate publikora zuzendutako mezenasgoa laguntzen duten tresnen falta, baita horretara orientatutako gizarte kultura urria ere.



KANPO DIAGNOSTIKOA

Aukerak:


1. Graduondoko ikasleak erakartzeko potentzial handia.
2. Ikasleen interesa UPV/EHUren gradu bikoitzetan eta nazioarteko titulazio bikoitzetan.
3. Online prestakuntzaren eta bizi osoko prestakuntzaren gero eta eskaera handiagoa.
4. Enpresa ehunaren, elkarteen eta sektoreko klusterren interesa prestakuntza praktikoari eta zeharkako gaitasunen garapenari dagokienez.
5. Eraldaketa digitala, ingurune teknologiko berrian lan egiteko gai izango diren profil profesionalak eskatzen dituena.
6. Gizarteak aurrera egin dezan ikertzaileen lanak eta ikerketak duen garrantziaren gizarte errekonozimendua.
7. I+G+B jarduera berria erakartzeko gaitasuna UPV/EHUko Zientzia Parkea martxan jartzearen bitartez.
8. Enpresa ehunak eta ingurune sozioekonomikoak berrikuntza txertatzeko premia.
9. I+G+Bko beste eragile batzuekin harremanak izan eta lankidetzan aritzeko eredu berrien garapena.
10. Bordeleko Unibertsitatearekin batera Mugaz Gaindiko Bikaintasun Campusa sendotzea.



KANPO DIAGNOSTIKOA

Aukerak:

11. Aurrerapenak ikasle ohiek UPV/EHUrekiko loturari eusteko lanetan.
12. Ingurunearekiko gero eta lotura handiagoa komunikazio kanal berrien bitartez.
13. Garapen Iraunkorrerako Helburuekin loturiko nazioarteko politikak (Agenda 2030).
14. Gazteen artean euskara dakitenen kopuruaren gorakada nabarmena.
15. Europako erakundeen eta sareen sentikortasuna mugikortasuna eta lankidetzaz sustatzen duten irakaskuntzako eta ikerketako ekimenak sustatzeari begira.
16. Eusko Jaurlaritzaren politikak prestakuntza duala, euskararen erabilera, prestakuntzaren nazioartekotzea, genero berdintasuna eta iraunkortasuna sustatzeko.
17. Euskal Herriaren erakargarritasuna bere ingurune naturalagatik, bizi kalitateagatik, hirietako bizitza sozialagatik eta testuinguru politiko eta sozialagatik.



MISIOA

UPV/EHU gizarte ingurunearen goi-hezkuntzako premiei erantzun, kalitatezko ikerketa gauzatu eta elkarlanaren bidez ezagutza sortu eta lurralde inguruneari eta nazioarteko komunitateari transferitzen dien unibertsitate publikoa da. Euskal gizartean erroturiko unibertsitatea da, munduari irekia, eta gogoetarako eta pentsamendu kritikorako espazio askea eskaintzen duena. Liderra da euskarazko prestakuntzaren arloan eta arreta berezia jartzen dio euskal kulturari, bere jarduera konpromiso etikoz eta gizarte konpromisoaz gauzatuta.



IKUSKERA

- UPV/EHUren helburua ikasleei kalitatezko heziketa ematea da eta haientzat unibertsitatetik igarotzea esperientzia aberasgarria izateaz gain tokiko erronkei zein globalei modu egokian erantzutea eta ingurune aldakor eta gero eta zorrotzago batean modu etiko eta sortzailean jardutea ahalbidetzea ere.
- UPV/EHUK bere nazioarteko ikerketa profila bultzatu nahi du erronka berriei aurre egin ahal izateko –erronka sozialak, kulturalak, ekonomikoak eta ingurumenekoak–, gizartearen eraldatze prozesuan lider izateko nahiarekin, betiere jakintzaren bitartez.



IKUSKERA

- UPV/EHU sustraiak bere ingurunean dituen unibertsitatea da, eta bere helburua gizarte konpromisoaren arloan erreferentziazko eredu bilakatzea eta Euskal Herriaren kultur garapenean betetzen duen eginkizuna indartzea da.
- UPV/EHUK erakundeko irakasle-ikertzaileen eta AZPko langileen karrera profesionalaren garapena sustatu nahi du.
- UPV/EHUK finantza eta ondare jasangarritasuna bermatu nahi du, baita gaitasun zientifiko-teknologikoak eta informazio teknologiek loturikoak ere, helburu gisa izanda zerbitzu publikoaren kalitateari eta unibertsitateko kideen ongizateari eustea.



ARDATZ ESTRATEGIKOAK

1. PRESTAKUNTZA

Helburuak:

- Graduoko eta graduondoko eskaintza eleaniztuna, jasangarria eta kalitate egiaztatukoa sustatzea, bai aurre-aurrekoa zein on-line, euskal gizartearen premiei erantzungo diena.
- Ikasleak graduondoko ikasketetara erakartzea, eskaintza gero eta interes handiagoa duten edota Unibertsitateak balio bereizgarria duen arloetara bideratuz eta dibertsifikatuz.
- Berezko hezkuntza ereduaren garapenean sakontzea.
- Ikasleen enplegagarritasuna bultzatuko duten baldintzak sortzea.
- Inguruko premiei erantzungo dien heziketa iraunkorreko eskaintza garatzea bai aurre-aurreko zein on-line modalitatean.
- Heziketaren nazioartekotzea bultzatzea.
- Irakaskuntza eskaintzaren euskalduntzean aurrera egitea.



ARDATZ ESTRATEGIKOAK

2. IKERKETA

Helburuak:

- Ikertzaile berriei eta prestatzen ari direnei laguntza ematea eta ikertzeko kultura sustatzea.
- Ezagutza eta berrikuntza bultzatzea, Euskal Herriari lotzeko eta mundura irekitzeko konpromiso bikoitzetik, ikerketa unibertsitate prestakuntzarako oinarrizko elementua dela kontuan hartuta.
- Bikaintasuneko ikerketa, diziplina anitzekoa eta mugakoa sustatzea, jardura zientifikoaren eta teknologikoaren nazioartekotzea areagotuko duena.
- Indarrean den Europar Batasuneko Ikerkuntza eta Berrikuntzarako Oinarrizko Programarekin bat datozen ekintzak sustatzea, eta programa horretan parte hartzea bultzatzea.
- Gure unibertsitatearen nazioarteko kokapena indartzea, gure aliantzak sendotuz Bordeleko Unibertsitatearekin, Euroeskualdeko Nazioarteko Bikaintasun Campusaren esparruan, eta ikerketako beste eragile batzuekin.



ARDATZA ESTRATEGIKOAK

3. GIZARTEAREKIKO HARREMANA

Helburuak:

- Unibertsitatea iraunkortasunarekin eta sozialki konprometitua izan dadin lortzea, bere ingurunean erreferentzia gisa balio dezan.
- Lidergoa sendotzea, jakintza sortzeko eta transferitzeko eragile gisa eta euskal gizartearekin lankidetzan aritzeko eragile gisa, lehiakortasuna eta gizarte garapena hobetzeko.
- ZTBP-RIS Euskadi garatzen laguntzea, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko gainerako eragileekiko kolaborazioa egituratuz.
- Zientzia eta teknologia bokazio goiztiarrak bultzatzea, bereziki emakumeen artean.
- UPV/EHUK euskararen erabileraren normalkuntzan eta Euskal Herriaren garapen soziokulturalean betetzen duen lidergoa areagotzea.
- UPV/EHUK bere inguruneari egiten dion ekarpena ezagutzera ematea.



ARDATZ ESTRATEGIKOAK

4. PERTSONAK

Helburuak:

- Ikasleen artean unibertsitate balioak, lankidetzak, berdintasuna, pentsamendu kritikoa, sormena eta gizarte konpromisoa garatzea, herritar bezala euren hezkuntza integrala sustatuz.
- Irakaskuntzako, ikerketako eta kudeaketako karrera akademikoko eredu arautu baten garapena bultzatzea, mailen araberako mugak ezarrita.
- Unibertsitatearen zereginarekin bat datorren AZPko langileen ibilbide profesionala garatzeko baldintzak hobetzea.
- AZPko langileen egiturak unibertsitatearen beharretara egokitzea.
- Lanean kalitatearen hobekuntza sustatzea.
- Unibertsitateko talde guztiak hizkuntz eta kultur arteko gaitasunetan hezteko eta haien akreditazioa bultzatzea, baita nazioarteko mugikortasuna sustatzea ere.
- Euskararen erabileraren normalizazioa lortzea unibertsitate bizitzako eremu guztietan.



ARDATZ ESTRATEGIKOAK

5. GOBERNANTZA ETA BALIABIDEAK

Helburuak:

- Administrazio kudeaketa arinagoa, hurbilekoagoa eta gardenagoa sustatzea.
- Unibertsitateko talde guztiek gobernu estrategietan partaidetza handiagoa izan dezaten bultzatzea.
- Emakumeen parte hartzea eta promozioa areagotzea akademia eta zientzia munduan.
- Ikastegietako eta departamentuetako egiturak unibertsitatearen premia eta erronka berrietara egokitzea.
- Gastuaren eraginkortasuna eta efizientzia hobetzea eta baliabideak lortzeko bide berriak bultzatzea.
- Campusetako unibertsitate bizitza sustatzea
- Campusak irakaskuntzako eta ikerketako azpiegituz eta zerbitzuez hornitzea.



PLAN ESTRATEGIKOA LANTZEKO METODOLOGIA

Partaidetza prozesu baten bitartez landuko da; bertan, Unibertsitateko eta gizarteko hainbat kolektibok parte hartuko dute.

Faseak:

- **Aurretiko fasean:** Oinarri dokumentu bat prestatuko da eta UPV/EHUko Klaustroan auzteztuko da eztabaidatu eta onartzeko.
- **Bigarren fasea edo tarteko fasea:** Unibertsitateko kideek eta Gizarte Kontseiluan ordezkaturiko gizarte eragileek proposamen bat landuko dute.
- **Amaierako fasea:** Plan Estrategikoa landuko da eta Gobernu Kontseiluan aurkeztuko da eztabaidatu eta onartzeko.



eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Eskerrik asko

